



Zizur Nagusia

KULTUR PROGRAMA

Maiatza - Ekaina // 2026



zizurmayorcultura.es/eus



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

MAIATZA

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

04/30 Hitzaldia
INMATRICULACIONES

05/02 Antzerkia
**INMATRICULACIONES
OH MY GOD!**

04/27 - 05/02 Erakusketa
**INMATRICULACIONES
ESCÁNDALO MONUMENTAL**

05/03 Haur zinema
ELIO

05/07 Zineforuma
LA MUJER DE LA MONTAÑA

05/09 Musika
NEW YORK NEW YORK

05/13 Musika korala
ZIZUR NAGUSIKO ABESBATZA

EKAINA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

05/16 Antzerkia
**MUJERES QUE CANTAN
TRAS EL BALCÓN**

05/17 Haurrentzako antzerkia
CHECK OUT

05/22 Musika
**ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA
ETA RUBEN SIMEÓ**

05/23 Antzerkia
**LO PEOR QUE LE PUEDE
PASAR A UN NIÑO**

05/30 Dantza antzerkia
EL HILO DEL OLVIDO

05/31 Antzerkia
HABLEMOS DEL AMOR

06/05 Antzerkia
GOOL

**AHAL DUZUN GUZTIETAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ.**



Eskatu aurikularra
edo begizta
magnetikoa
atezaindegian

Antolatzailea



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor

Diru-laguntzailea

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

D.L. NA-1369-2012. Doako zabalpena.



DUO BONUA

12€

Antzerkia

**MUJERES QUE CANTAN
TRAS EL BALCÓN**

Dantza antzerkia

EL HILO DEL OLVIDO

MAIATZA BONUA

24€

Antzerkia

**INMATRICULACIONES
OH MY GOD!**

Antzerkia

**MUJERES QUE CANTAN
TRAS EL BALCÓN**

Antzerkia

**LO PEOR QUE LE PUEDE
PASAR A UN NIÑO**

Dantza antzerkia

EL HILO DEL OLVIDO

DESKONTUAK

Gazte eta ikasle txartelak

(12 eta 30 urte bitarte)

4 euroko edo 4 eurotik gorako sarreretan %50eko murrizketa. Ez da aplikatuko haur ikuskizunetan.

Betebeharrak: NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea

Langabetuak

Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.

Betebeharrak: NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

ALDEZ AURREKO SALMENTA

Apirilaren 21eko (asteartea)
09:00etatik aurrera .

Txarteldegia

Astelehenetik ostiralera
09:00 - 21:00

Larunbatetan
10:00 - 14:00
17:00 - 21:00

Igande eta jaiegunetan
12:00 - 14:00

Ikuskizuna hasi baino
ordubete lehenago.

Online (gasturik gabe)

zizurmayorcultura.es/eu

Egiatzatu zure erosketa eta ez ahaztu sarrera..

OINARRIZKO ARAUAK

Puntueltasuna: Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

Seinale akustikoak: Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak: Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.

Haur ikuskizunak: Adin gomendatura doitzea aholkatzen da:

- 3 urtetik beherakoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen.

- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

Erakusketa

INMATRICULACIONES ESCÁNDALO MONUMENTAL

JAVIER ETAYO "TASIO"

APIRILAREN 27TIK MAIATZAREN 2RA

Kultur Etxeko patioa

Hitzaldia

INMATRICULACIONES

NAFARROAKO ONDAREAREN
DEFENTSARAKO PLATAFORMA

APIRILAK 30 OSTEGUNA

19:00 · Anfiteatroa



Antzerkia

INMATRICULACIONES OH MY GOD!

AMICO TEATRO

MAIATZAK 2 LARUNBATA

20:00 · 65 min · 8€

Ion Barbarinek eta Txori García Urizek antzeztutako obrak umorez eta sinesmen erlijiosoa errespetatuz salatzen ditu Eliza Katolikoak bere izenean erregistratu zituen ondasunak.

Bi aingeru inozo dira eszena ezberdinak aurkezten dituzten zeremonia-maisuak. Eliz mutilak, gotzainak, apaizgaiak, jabetza-erregistroko funtzionarioak... Loteria berezi honetan zortea

diozesiaren arabera banatzen da eta sari nagusia Kordobako Meskita da.

Herriko apaizak eskuak garbitzen ditu, abesti alai bat entzuten da, ondasun higiezinak erregistratzea zein erraza den azaltzen duena, eta gure aingeruek ezin sinetsita ikusten dute hori guztia goi-goitik.

Haur zinema

ELIO

MADELINE SHARAFIAN, DOMEI SHI, ADRIÁN MOLINA

MAIATZAK 3 IGANDEA

18:00 · 98 min · 3€ · Gaztelaniaz



Elioren istorioa da hau, 11 urteko mutikoa, irudimen handia eta estralurtarrekiko obsesio handia duena, gainontzekoen artean beste bat izateko borrokatzen da, bat-batean espaziora eraman eta Lurreko enbaxadore galaktiko gisa identifikatzen duten arte.



Zineforuma

LA MUJER DE LA MONTAÑA

BENEDIKT ERLINGSSON

MAIATZAK 7 OSTEGUNA

19:00 · 101 min · 2€

Berrogeita hamar urte zituela, Hallak, kantu irakasleak, gerra deklaratu zion aluminioaren tokiko industriari, bere herrialdea kutsatzen ari baitzen. Horretarako, mota guztietako arriskuak hartuko ditu Islandiako ingurumena babesteko. Baina bere egoera alda liteke gutun bat ustekabean iristen denean.





Musika

NEW YORK NEW YORK

ZUGARDI BIG BAND



MAIATZAK 9 LARUNBATA
20:00 · 10€

“New York, New York” filmeko soinu-bandak (Martin Scorsese, 1977) klasiko bat sortu zuen, eta Frank Sinatrak arrakasta handiz gehitu zuen bere programan. Sagar Handiak bere ereserkia zuen. “La Voz” izeneko crooner ospetsuari omenaldi gisa, Zugardi Big Bandek XX. mendeko 30eko hamarkadatik gaur egunera arteko ahots klasikoan ibilbidea prestatu

du, horietako asko Sinatrarekin elkartuta. Raul Martains eta Ana Zabalza dira “New York, New York” kontzertuko abeslariak. Gaur egun, Zugardi Big Band Nafarroako jazz talderik handiena da (39 musikari), eta Zizur Nagusian jaio zen 2017ko udazkenean. Taldearen zuzendaritza musikala Wifredo Solerrena da.



Musika korala ZIZUR NAGUSIKO ABESBATZA

MAIATZAK 13 ASTEAZKENA
19:00 · 4€



Zizur Nagusiko Abesbatzak bere lehen kontzertua eskainiko du, musika koraleko hainbat estilo biltzen dituen egitarau anitzarekin, musika koralaren aniztasuna eta aberastasuna islatuz.

Kontzertu hau helburu argi batekin jaio da: musikaz gozatzea eta kantu korala gure herrira hurbiltzea, Zizur Nagusian proiektu musikal berri honen ilusioa publikoarekin partekatuz.

**Gurekin batera musikaz gozatzera
gonbidatzen zaituztegu.**



Antzerkia

MUJERES QUE CANTAN TRAS EL BALCÓN

BOGA BOGA

MAIATZAK 16 LARUNBATA
20:00 · 70 min · 8€



Amona;

Zer abesti kantatzen zenituen gaztetan? Nolakoak ziren egiten zenituen antzezlanak? Zein pertsonaiak?

Aktore batek ezagutu ez zuen amonarekin hizketan ari da. Ulertu nahi du nola izan zen bere auzokideak publikoa bihurtzea eta sukaldea eszenatoki, gerra ostean.

Galdetzeak gogorarazteko balio dio, eta horrela deskubrituko du zer dagoen bere amonaz beregan: emakume belaunaldi hartaz gu guztiongan.

Autobiografia, dokumentu-antzerkia eta objektu-antzerkia hibrido perfektua dira ipuin, antzerki edo agian kontzertu bat izan litekeen adierazpenari egindako oda honetarako.

Haurrentzako antzerkia

CHECK OUT

ADRIÁN CONDE

MAIATZAK 17 IGANDEA

18:00 · 55 min · 4€

Gomendatutako adina: +5 urte

Zinema mutuan oinarritutako komedia bisuala.

Eugènek bitzta hotel bateko atarian igarotzen du, maleten artean bere seme-alabei etorkizun hobe uztearekin amesten du. Gaizki ulertzeen, clown-jokoaren eta dibertimendu handiaren artean mugitzen den mandatu-mutil bategi, ezusteko lan-egun batean, orainaz gozatzen bitztea baino etorkizun hoberik ez dagoela ikusten du.

Istoriok honek familiaren garrantziaz eta denbora zertan igarotzen dugun hausnartzera gonbidatzen gaitu.



Musika

ZIZUR NAGUSIKO MUSIKA BANDA

RUBÉN SIMEÓREKIN

MAIATZAK 22 OSTIRALA

20:00 · 4€



Zizur Nagusiko
Udal Musika Banda

Banda Municipal de
Música de Zizur Mayor



ESTREINALDIA!
NAFARROAN

Antzerkia

LO PEOR QUE LE PUEDE PASAR A UN NIÑO

ÉKOMA TEATRO & JAVIER LIÑERA

MAIATZAK 23 LARUNBATA
20:00 · 80 min · 8€



Barbie eta unxi baten nekropsia eszenatoki gainean aurkeztuz, Javier Liñerak antzerkia erabiltzen du, ez bakarrik azken arte gisa, baita kolpatzeko, gogoratzeko, nahasteko, duintzeko... tresna gisa ere.

Eszena krudelak lortzen ditu, baina ez desatseginak. Gogorak, baina gomendagarriak. Eta zoragarri idatzita eta planteatuta dramaturgikoki. Maskulinitatearen dekonstrukzioaren ideiatik abiatzen da obra. Maskulinitate berezi bat, pertsonaiarena berarena, mundu osoan eraldatzen dena.

Piezan identitateari buruzko galderak planteatzen dira, zer den maskulinoa eta zer ez, nola erakitzen den, zer den bitarra, nola irakurtzen diren gure gorputzak.

Piezak aurrera egiten du txikitatik maskulinoa izateari buruz dugun ideiarene erakuntza-azterketa honetan. Baina ideia horrek haustura izango du, genero-rolen hierarkia lausotuko da.



ESTREINALDIA!
NAFARROAN



Dantza - antzerkia

EL HILO DEL OLVIDO

CÍA. DANZA FERNANDO HURTADO

MAIATZAK 30 LARUNBATA

20:00 · 55 min · 8€

50 urte inguruko emakume bati Alzheimer goiztiarraren gaixotasuna diagnostikatzen diote.

Badaki pixkanaka bere oroimena galtzen joango dela, eta, beraz, baita bere oroitzapenak ere.

Ahantzura-uneen eta argitasun-uneen artean, bere iraganaz eta onartu nahi ez duen etorkizun hortaz hausnartzen du:

“Nire izpiritua eta arima Alzheimerra bezalako gaixotasun baten triskantzekiko immuneak al dira?”

Nik baietz uste dut “.

Bere inguruan, bere haurtzaroaren oroitzapena eta inoiz biziko ez dituen beste amets batzuk konpartitu dituzten pertsonak.

Antzerkia
HABLEMOS DEL AMOR
ELORTZIBAR ANTZERKI TAILERRA

MAIATZAK 31 IGANDEA
19:00 · 70 min · 4€

Bai, hitz egin dezagun maitasunaz beste behin.

Eta desamodioaz ere bai, zergatik ez?

Bila dezagun logika zentzugabekeria,
bere soinu-bandaren bidez.





ESTREINALDIA!
NAFARROAN

Antzerkia

GOOL

YLLANA

EKAINAK 5 OSTIRALA
20:00 · 90 min · 12€

«Kirol nagusia» deiturikoari erabat eskainitako ikuskizuna: futbola.

Mugak eta kulturak gainditzen dituen fenomeno da, eta motor sozial, ekonomiko eta politiko boteretsua bihurtu da. Zalantzarik gabe, mundu osoan grina eta diru gehien mugitzen duen kirola da, baita eztabaida gehien sortzen dituen ere, eta jatorri, adin edo sinesmen desberdineko pertsonak batzeko edo banantzeko gai dena ere.

GOOL-en, Yllana unibertso liluragarri eta kontraesankor honi buruzko satira batera abiatzen da.

Ikuskizun bisual, garratz eta zentzugabea, barre algarak eragingo dituen, azken finean, GOOLEk gutaz hitz egiten baitu.

Eta eraikitzen ari garen munduaz... pilota baten atzetik.